

DBH 4. mailako ikasleak gara eta mugimendu ultraeskuindarrei buruzko ikerketa-lan bat egingo dugu, aldez aurretik genituen hainbat zalantza argitzeko.

Gaur egun, entzuna egiten zaigu komunikabideetan ageri direlako edo, agian, ingurukoei entzuna diegulako hainbat gai politiko: "Tea Party" edota AEBn eta European indarra hartzen ari diren alderdi kontserbadoreak. Telebistan ultraeskuindarrak direla esaten dute, baina hori zer den ba al dakigu? Badakigu zer esan nahi duen ultraeskuinak? Zer gizarte-mota aldarrikatzen duten alderdi horiek?

Gure lanerako, informazio-iturri ezberdinak izateko, betiko baliabidetatik aparte, zuzeneko iritziak jaso nahi genituen. Hori dela eta, ikastolatik kanpo inkesta bat egiten aritu gara, inguruko adin eta sexu desberdineko jendeari eta emaitzak ikusita, argi ondorioztatu dugu jendearen gehiengoak ez dakiela zehatz-mehatz zer diren mugimendu horiek. Batzuek kritik aterako gaituztela diote. Beste batzuek, ordea, "faxistak" direla esaten dute. Baina orduan, zer dira benetan?

Interneten ibili gara, geure jakin-mina argitu nahian, eta zenbait web-orrialdetan honelakoak topatu ditugu: ijitoen kanporaketak Frantzia, Suedian ultraeskuina garaile atera dela, Holandan indar handia hartu dituzte azken hauteskundeetan ... Baina bat bereziki arreta deitu digu: OctavioRodríguez Araujo idazle mexikarrak idatzi duen artikulu bat. Bertan era subjektibo baten bidez, ultraeskuina zer den azaltzen du:



Octavio Rodríguez Araujo
(<http://pueblapeje.blogia.com/2008/121102-articulo-de-octavio-rodriguez-araujo.php>)

“Gobernu bat alderdi eskuinekoa dela esaten dugu, bere politika publikoen bidez ez duenean berdintasun handiagoa sustatzen eta ezberdintasun sozialak sendotzen dituenean. Eta aurrekoaz gainera, gobernu bera praktika arrazistak, xenofoboak eta erlijio edo iritzi kulturalen kontra doanean gobernu ultraeskuindar bati buruz hitz egiten ari gara”

OctavioRodríguez Araujo, *Derechas y Ultraderechasenelmundo*

Baina, hori irakurtzean, galdera bat argitu ordez, askoz gehiago egin dizkiegu gure buruei: testu horrek diotenaren araberakoak al dira botere handia hartzen ari diren alderdiak? Edo ezberdinak al dira? Zergatik daude gero eta indar handiagoa hartzen? Ba al du krisiak eraginik horretan? Eta Elizak? Faxismoarekin zerikusirik ba al daukate? Zer da faxismoa? Espainian horrelakorik ba al daude? Zeintzuk? Hori al da Garzon epaileak ikertzen zebilenak?

Guztietarako erantzunik ez geneukanez, ikerketa-lan honetan aurreko galderak argitzen saiatuko gara dena gardenago ikusteko asmoz.